



**Arartekoaren ebazpena, 2009ko uztailaren 2koa;** Abanto-Zierbenako Udaleko saiakuntza proiektu baten inguruko informazio zehatza ezin eskuratzeari buruzkoa.

### Aurrekariak

1. (...) elkarte ekologistak Abanto-Zierbenako Udalean eskuragarri zegoen informazio zehatza ezin eskuratzeari buruzko kexa planteatu zuen.

Elkarteak emandako informazioaren arabera, 2008ko abuztuaren 4an eta urriaren 23an "A-8ko zarata arintzeko Euskadin egongo den lehenengo oztopo naturalaren" gainean egindako azterlan teknikoaren eta betearazpen proiektuaren kopia eskatu zuen, ingurumen arloko informazio publikoa izateko eskubideari jarraiki.

2008ko azaroaren 5ean (alkatearen ofizioa txosten juridikoarekin) eskatutako informazioa eskuratzeko ukatzen zaio, informazioa eskuratzeko legerari buruzko 13.1.c) (egiazki d) atala) artikuluan ezarritako salbuespena aplikatzen dela kontuan hartuta<sup>1</sup>. Ezezkoa eman izanaren arrazoia da eskaera une honetan prestatzen ari den materialei buruzkoa dela edo bukatu gabeko datu edo agiriei buruzkoa. Esan behar da ezezkoa ematearen arrazoia hori bada, agintari publiko eskudunak ukapenean adierazi beharko lukeela materiala prestatzen ari den agintea zein den eta eskatzaileari jakinarazi beharko liokeela esku artean duena egiten amaitzeko aurreikusitako denbora zein den.

Eskaera ukatzeko erabili zen txosten juridikoaren ondorio gisa honakoa adierazi zen: kontuan hartuta "Ibilgailuen zirkulazioak landare hesiaren bidez igorritako material partikulatuaren eragina arintzeko saiakuntza proiektua" oraindik amaitu ez den proiektua dela eta, hori dela eta, udala aktiboki ari dela lan egiten, bidezkoa da (...) elkarteak eskatutako ingurumen informazioa ukatzea.

Txosten juridikoak aurrekari gisa aipatzen duen txostenak, ingurumeneko teknikariak egindakoak, aldiz, adierazi zuen "proiektuak" bost fase dituela eta hemendik gutxira laugarrenarekin hasiko direla; amaierako data 2009ko abendua izango dela aurreikusi dute.

Erreklamazioa jaso ondoren, Arartekoak udalari kexaren inguruko informazioa eskatu zion eta kontu horri buruzko lehenengo gogoeta helarazi genion.

<sup>1</sup> Ingurumen arloko informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legea.



2. Alkateak, 2009ko martxoaren 30ean, txosten juridikoa bidali zigun, egindako informazio eskaerari erantzuna emateko.

Txosten juridikoak honako adierazpena hartzen du abiapuntu: edozein pertsonak dauka agintari publikoek duten ingurumen informazioa eskuratzeko eskubidea, interes jakin bat egiaztatzeko beharrik gabe. Jarraian informazioa eskuratzeko legearen 13.2. e) artikuluko salbuespena aipatzen da. Horrek agintari eskudunak ingurumen informazio ukatu ahal izango duela xedatzen du, eskatutako informazioa ezagutzera emateak jabetza intelektual eta industrialaren eskubideei modu negatiboan eragiten badie, titularraren berariazko baimena tartean ez baldin badago.

Ildo horretan, apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretua aipatzen da –horren bidez Jabetza Intelektualari buruzko Legearen (JIL) Testu Bategina onartzen da- eta 17. artikulua honako du hizpide: egileari dagokio bakarrik bere obraren ustiapen eskubideen baliatzea modua edozein dela ere eta, bereziki, erreproduzio, banaketa, komunikazio publiko eta transformazio eskubideen baliatzea. Horiek ezingo dira haren baimenik gabe egin, aipatutako legean ezarritako kasuetan izan ezik.

Txostena honakoa aipatuz amaitzen da: Abanto-Zierbenako Udalak egin ez duen proiektua denez –ordea, horretarako egindako lehiaketaren esleipendun enpresak idatzi zuen-, udal administrazioak ezin ditu proiektuaren kopia eman egilearen baimenik gabe. Izan ere, jabetza intelektualaren kontrako hutsegite gisa tipifikatutako arau-haustea izan zitekeen.

3. Aipatutako txosten juridikoa aztertu ondoren, udal zerbitzu juridikoekin gestio batzuk egin genituen, gure ustez informazioa ukatzeko arrazoiketa berria zuzenbidearekin bat ez datorrela aintzat hartuta, ikuspuntu formalari dagokionez -hasierako ukapena oinarritzeko balio izan zuena eta hori desberdina izateagatik- eta eduki materialaren ikuspuntuari dagokionez.

Gestio horien ondorioz, udalak ahoz erreklamaziogileen eskaerak onartzea erabaki zuela esan zigun. Hori horrela, elkarre erreklamaziogileari jakinarazi zion *“behin proiektuaren egitea amaituta”* udalean ager daitekeela bertan jasotako ingurumen informazioa eskuratu ahal izateko. Eskubide hori ingurumen arloko informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legeak jasotzen du.

4. Aurrekari horiek ikusita, elkarre interesdunak proiektuan jasotako informazioa eskuratu ahal izan duen arren eta arazoa konpontuztat jo genezakeen arren, egokia iruditu zaigu ebazpen hau ematea, honako hauen arabera:



## Gogoetak

1) Lehenik eta behin, elkarte erreklamaziogileak eduki formalaren ikuspegitik egindako informazio eskaeraren ukapena baloratuko dugu.

a) Herri-administrazioek emango dituzten administrazio egintzak organo eskudunaren bidez egingo dira, ezarritako prozedurarekin bat etorritik (HAAJAPELeko 53.1. artikulua<sup>2</sup>).

Elkarte erreklamaziogileak, eskaerari erantzunez, egindako eskaerari ezezkoa eman zion txosten juridikoa jaso zuen, idazki batekin batera. Bertan, alkateak proiektua dela-eta eskaintako interesagatik eskerrak eman zituen. Administrazio orokorreko teknikariak txostenean espresuki honakoa aipatu zuen: *“el órgano competente adoptará lo que estime conveniente”*.

b) Aipatutako txosten juridikoaren berri ematen zuen alkatearen ofizioa ezin da, besteak beste, AJAko 196.1. artikulua eskatutako formaltasunekin eman den ebazpentzat jo<sup>3</sup>.

c) Jakinarazpenek ebazpenaren testu osoa hartu behar dute barne - administrazio bidea agortzen den edo ez adieraziz-, eta dagozkien errekurtsioak, horiek zein organori aurkeztu behar zaizkion eta horiek jartzeko epeak azalduz (HAAJAPELeko 58.2. artikulua).

Elkarte erreklamaziogileak bere informazio eskaeran aipatzen zuen araudi sektorialak, gainera, informazioa eskuratzeko legearen 10. eta 20. artikuluetan ebazpenen alderdi formalei buruzko kontu batzuk hartzen ditu barne. Alderdi horiek eskatutako informazioaren ukapen ebazpenak bete behar duen edukari buruzkoak dira, aurreko atalean aipatutako herri-administrazio guztientzat prozedura erkidea arautzen duen araudiak egiten duen modu berean.

Jasotako jakinarazpena ez zen organo eskudunak hartutako administrazio egintza eta ez zituen lehen aipatutako baldintzak betetzen. Hortaz, ikuspegi formaletik informazio eskaeraren ukapena ez zettorren bat legezkotasunarekin. Bistakoa den arren, garrantzitsua da azpimarratzea administrazioa administrazio prozeduraren menpe jartzea herritarrentzat bermea dela eta hori beti errespetatu behar dela.

<sup>2</sup> Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea.

<sup>3</sup> Tokiko Erakundearen Antolakuntza eta Jarduera Araubidea (azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua).



- 2) Eskatutako informazioaren ukapenaren eduki materialari dagokionez, analisia ingurumen arloko informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen uztailaren 18ko 27/2006 Legean zentratzen dugu. Informazio hori elkarte ekologista erreklamaziogileak espresuki eskatu zuen.

Aipatutako legeko 13.1. artikulua, eskaera ukatzeko alegatu zen arrazoia izan zenak, ingurumen informazioa emateko betebeharraren salbuespenak arautzean, beste kasu batzuen artean, honakoa xedatzen du:

*“d) Que la solicitud se refiera a material en curso de elaboración o a documentos o datos inconclusos. Por estos últimos se entenderán aquellos sobre los que la autoridad pública esté trabajando activamente. Si la denegación se basa en este motivo, la autoridad pública competente deberá mencionar en la denegación la autoridad que está preparando el material e informar al solicitante acerca del tiempo previsto para terminar su elaboración”*

Hortaz, azpimarratu behar da ingurumen informazioa eskuratzeko eskubideaz baliatzean salbuespenen aurrean gaudela eta, hori horrela, modu murriztailean interpretatu behar direla.

Bere garaian udalari adierazi genion moduan, Espainiako Errege Akademiaren Hiztegiak ematen duen oinarritzako definizioak honakoa dio: proiektua da arkitektura edo ingeniartzako lan batek nolakoa izan behar duen edo zenbat kostako den jakiteko idazki, kalkulu edo marrazki teknikoaren multzoa. Hortaz, proiektuaren prestaketa amaituko da burutu edo martxan jarri nahi denari buruzko ideia zehatza emateko beharrezkoak diren agiri guztiak proiektuan jasotzen direnean.

Ildo horretan, txosten juridikoak aipatu zuen informazioa eskuratzeari buruzko legearen 13 d) artikulua *“material en curso de elaboración o documentos o datos inconclusos”* du hizpide, alegia, lehen proiektu gisa definitu duguna. Proiektu bat prestatzea eta organo eskudunak hori onartu arteko ondorengo izapidea ezin daitezke nahasi proiektua martxan jarri edo burutzearekin, eta ezta geroko jarraipen eta ebaluazio faseekin ere.

Edonola ere, aipatutako proiektuak dituen faseei buruzko informazioa eskatzen diogu Abanto-Zierbenenako Udalari; zer izen duen, materialaren edukia (osetzen duten agirien aurkibidea), martxan jartzeko edo bideratzeko hartutako erabakiak, etab. Hori guztia, *“fasetzat”* jotzen zirenak proiektuaren egiteari



zegozkionak ote ziren edo proiektua gauzatzeko faseak eta emaitzen inguruko ondorengo ebaluazioa ote ziren egiaztatze aldera, erabilitako terminologiatik eta proiektua abian jartzearen inguruan prentsa albisteetatik ondorioztatu zenaren arabera.

- 3) Udalak, alde zuzenetik eskatuta, egin genuen informazio eskaerari erantzuna eman zion eta, horretarako 2009ko martxoaren 17ko txosten juridikoa bidali zigun. Txosten hori administrazio orokorreko beste teknikari batek sinatu zuen eta, ebazpen honetako aurrekarietan adierazitakoari jarraiki, bere ustez egindako informazio eskaerari Jabetza Intelektualari buruzko Legearen (JIL) Testu Bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legea aplikatzen zaio.

Txostenak honakoa ondorioztatzen du: aipatutako proiektua udalak ez zuela egin kontuan hartuta –proiektua horretarako egindako lehiaketaren esleipendun enpresak egin baitzuen, hain zuzen ere-, ezin zituen proiektuaren kopiak eman egilearen baimenik gabe. Izan ere, jabetza intelektualaren kontrako hutsegite gisa tipifikatutako arau-haustea izan zitekeen.

Puntu honetan honakoa aipatu nahi dugu: jasotako erantzunak ez die erantzunik ematen proiektuaren edukiaren eta hasierako ukapenaren arrazoiketaren inguruan egin genuen informazio eskaeran planteatutako kontuei; aldiz, txosten juridiko berriak oinarri juridiko desberdinak dituen planteamendu berria egin du, horrek ondorio berdina baitu, alegia, eskaera ukatzea.

Informazioa eskuratzeari buruzko legearen 13.2. artikulua, salbuespenak arautzean, ingurumen informazio eskaerak ukatu ahal izango direla xedatzen du eskatutako informazioa ezagutzera emateak zerrendatzen diren alderdiei modu negatiboan eragiten badie. Hala nola, honakoa aipatzen du:

*“e) A los derechos de propiedad intelectual e industrial. Se exceptúan los supuestos en los que el titular haya consentido en su divulgación.”*

Jabetza intelektualaren eta industrialaren eskubideek ingeniaria eta arkitekturako obrak proiektu eta planoak eta topografia, geografia edo beste zientziaren baten inguruko mapa eta diseinua eragiten dute, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 10. artikulua adierazitakoarekin bat etorritik. Ordea, Jabetza Intelektualari buruzko Legearen 31 bis 1) artikulua espresuki alde batera uzten du egilearen baimena obra bat publikoki segurtasun publikoko helburuekin edo administrazio prozeduren, prozedura judizialen edo parlamentuzko prozeduren garapen egokiarentzat erreproduzitzen, banatzen edo komunikatzen denean.





Administrazio espedienteko agiriak, oro har, titularra edo egilea ez diren hirugarren interesdunek aztertze eskubidearekin lotuta daude, administrazio prozeduren bideratzean izapidea agintzen duten arauekin bat etorritik.

Gure ustez, egile eskubideak arautzen dituen legeriak ez du informaziorako eskubidea eta proiektuko egile eskubideak oinarri dituen kopia lortzeko eskubidea baztertuko dituen interpretazioa egiteko aukerarik ematen. Gogora dezagun zenbait justizia auzitegi kontu horri dagokionez egin duten planteamendua, proiektuaren kopia ematea jabetza intelektualari buruzko legean oinarrituta ukatu dela ikusita.

Horrela, Galiziako Justizia Auzitegi Nagusiak (279/2005 epaia, apirilaren 28koa) ez du uste arrazoi hori eskubidez baliatzea ukatzeko nahikoa denik: *“El artículo 14 de la ley de Propiedad Intelectual dispone, al indicar el contenido y características del derecho de autor, que corresponde a éste, como derecho irrenunciable e inalienable, decidir si su obra ha de ser divulgada y en qué forma. Quien acepta la redacción de un proyecto técnico para la obtención de una licencia de obra o de actividad sabe que ese proyecto se va a incorporar a un expediente administrativo y que sobre él, como parte del expediente, podrán obtener información los que tengan interés en relación con el otorgamiento de esa licencia en los términos que establece la legislación de procedimiento administrativo, que incluyen la obtención de copias.”*

Bestalde, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiak 2005eko otsailaren 9ko epaiaren bidez (JUR 2005/85566) aipatzen du biztanleek eskubidea dutela eraikuntza-proiektu batean jasotako agirien kopia lortzeko. Auzitegi honen ustez ez da balioduna eduki pertsonalaren eta ondare edukiaren egile eskubideen urraketa alegatzea, egile eskubideak babesteko araudia oinarri hartuta, eta honako iritzia dauka: *que el proyecto se encuentre en un expediente de carácter urbanístico y que a él tengan acceso quienes sean interesados no supone que éstos persigan obtener ni obtienen, al efecto nada se alegó, beneficios económicos derivados de su visualización”.*

Aipatu ditugun epaiek administrazio espediente batek barne hartzen dituen partikularren jabetzakoak diren proiektuak dituzte hizpide. Baina, kasu honetan, azpimarratu behar da erreferentziako proiektua udalak agindutako agiria dela eta altxor publikoaren kargura ordaindutakoa. Horregatik, agiria emateko ezezkoa are ulertezinagoa da.

lido horretan, kontuan hartu behar da, oro har, administrazioaren bidez agintzen eta ordaintzen diren proiektuentzat ohikoa izaten dela jabetza intelektual udalaren eskutara igarotzea. Hain zuzen ere, kontratazio arloko araudiak honakoa ezartzen du: administrazio klausulen agirietan edo kontratu agirietan



espresuki beste ezer xedatzen ez bada, jabetza intelektualaren edo industrialaren bidez babestutako produktuen garapena eta produktuok eskuragarri jartzea hizpide duten zerbitzuen kontratuek hori administrazio kontratatzaileari lagatzea tartean dakartela.

Proiektuaren idazketa kontratua esleitzeko erabili zen administrazio klausulen agiria eskuratu ezin izan dugun arren, udalak, beste kasu batzuetan artean, - hala nola, itzulpen zerbitzuen esleipena-, espresuki ezartzen du jabetza intelektualaren eta "copyright" eskubide guztiak Abanto Zierbenako Udalaren jabetzakoak bakarrik izango direla.

Lehen ere aipatu dugun moduan, interesdunek azkenean hizpide dugun proiektua esku artean izan dute, nahiz eta emateko azalpena proiektuaren "egitea" amaitu zela izan den. Antza, horretatik ondoriozta daiteke udalak inplizituki ukapenaren hasierako arrazoia aplikatzen duela. Ordea, ez gaude ados arrazoi horrekin, azaldutako gogoetei jarraiki.

Horregatik, egokia iruditu zaigu ebazpen hau ematea, herritarrak udalak duen informazioa eskuratzeko eskubideaz hobeto baliatzeko, etorkizunean planteatzen diren eskaerentzat.

- 4) Amaitzeko, egokitzen jo dugu 2005eko gomendio orokor batean egin genuen gogoetako alderdi batzuk aipatzea. Gomendio hori "Herritarrentzako informazioa eta parte hartzea tokiko eremuan" gaiari buruzkoa da<sup>4</sup>. Orduan, hauxe esan genuen:

*"Herritarrek gero eta maizago eskatzen dute informazioa eskuratzeko. Azken batean, gero eta hobeto dakite zeintzuk diren beren eskubideak, eta horregatik, herri administrazioen eginkizunen gardentasun handiagoa eskatzen dute, bai berariazko prozedura batean interesdunak izanda zuzenean eragiten dieten erabakiei buruz, bai beren ustez eragiten dieten beste jarduera batzuei buruz.*

*Gainera, pertsonak gero eta maizago eskatzen dute informazio hori argia, garrantzitsua eta eskuratzeko erraza izan dadin. Hori dela eta, administrazioek uste osoz lan egin behar dute informazioaren kudeaketa eraginkorragoaren alde. Kudeaketa horrek herri erakundeetan nagusitu den ohiko opakutasuna desagerrarazi behar du, erakunde horiek herritarrek beren eskutan dauden informazioa eta dokumentazioa eskuratzeko mugatu dutela."*

<sup>4</sup> [www.ararteko.net](http://www.ararteko.net) (ebazpenak eta gomendioak/gomendio orokorrak 2005)



Horrez gain, honakoa aipatu genuen:

*“Nolanahi ere, ....mota horretako eskaera bat jasotzen duen administrazioak hausnartu beharko luke eskaera horri nola erantzun modu positiboan, hau da, abiapuntua informazioa herritarren eskubidea dela eta guztien eskura dagoen benetako herri zerbitzua dela izan beharko litzateke.*

*Egiten diren eskaeren murrizketek neurri handiagoan erantzuten diote arrazoi ezberdinengatik publikoak izan behar ez diren zenbait jarduerari buruzko informazioa lapurtzearen beldurrari, babestu behar diren eta arriskuan dauden beste interes batzuk egoteagatiko kezkarri baino. Hona hemen aipatutako arrazoi horietako batzuk: ekintzen azalpenik eman behar ez izatea, kritikarik ez jasotzea, legez kontrako jardueren berri ez ematea, etab., hau da, administrazio jardueraren gardentasunik eza.”*

Hori horrela, kasuan kasuko erakundeen informazio politikaren inguruan sakon hausnartzea gomendatu genuen eta informazio zerbitzua oso-osorik arautzea proposatu genuen -udal jarduera ekarriko duten printzipioak eta baloreak eta informaziorako eskubidea bermatuko duten antolamendu jarraibideak gehituz-, administrazio gardenagoaren eta eraginkorragoaren testuinguruan herritarrei ematen zaien zerbitzuaren benetako bokazioarekin.

Laburbilduz, herri-administrazio orok herritarren informaziorako eskubidearen baliatzeari buruzko eskaera bati erantzuna eman behar dionean, honako premisa hartu behar du aintzat: nola bidera dezakeen eskaera modu positiboan. Horrela, udal jarduera herritarrei ematen zaion zerbitzuarekin bat etorriko da, informazioa ematerakoan eraginda egon daitezkeen beste hirugarrenen eskubideak kontuan hartu behar izatearen kaltetan izan gabe.

Kexagilearen erreklamazioa ikusita eta aurreko ataletan azaldutako gogoetak kontuan harturik, honakoa jakinarazten dizugu:

### Ondorioak

Abanto-Zierbenako Udalak kontuan har ditzala azaldutako argudioak eta, beraz, aipatutakook aintzat har ditzala herritarrek informazioa orokorrean eta, bereziki, ingurumen informazioa eskuratzeko duten eskubideaz balia daitezen.